

Gure olerkarien mendizaletasun-miña

*Indaleki Ojanguren'i, ez itzez, argazkiz-
baizik, zure olerkari-biotza erakutsi duzun
orri. Seigarren eun mendiko konkurtsou
bukatzean, omenez.*

J. S. M.

Betiko orlegi ezatsutasunez ornituriko zela-
lai ta basoak dituztelarik beren egietan,
tinko arkitzen ditugun mendiak: izar diz-
diratsuak bezela nun-nai sakabanaturik ba-
setxeak, Virgilio'ren bukoliken oroitzapena
dakarkiten artzai txabola zarak larradi
oparoetan, ibai korrontak zulaturiko aran
mearrak erritxo alaien gordelari eta bakar-
tasunez jabeturik zenbait ikuspegi berezi
dituen gaillur erpin, Pirineo'ko mendi
erraldoietan zear, azken gabe, Kantauri'ko
itsas zabalak beren egaletako arkaitzak
apar txuriz astindu arte luzatzen dira, Eus-
kalerri'ko mendi maitiak, kolore atsegin-
korrak multzoka dituztelarik.

Ez da arritzekoa euskaldunok mendizale
izatea, erri kantak diñon lez:

*"Mendiko semea naiz ta
mendia det maite,
ez nintzake biziko
menditik aparte..."*

Izan ere, mendizale geienok olerkari bio-
tzak eraginda gabiltzala esango nuke. Zer
da, gure barneko gogo-ametsa baizik, men-
dietan zear eramatzen gaituan ori? Euskal-
dunok ba-dugu gure mendi berezi oietan
anitz gai Parnaso'ko gauak lira doñuz ori-
nitzeko: mendiaren izadi ederra, pakea, az-
katasuna, atsedena... Noizik-peinean, uri-
etako oitura naspilgarrietatik aldendurik,
mendiko giro gardenetan izaten ditugu gure
ase-aldiak; Emeterio Arrese tolosarrak be-
zela esan genezake:

*"Mendian iñoiz aldarte txarrik
ez det izan, lasai nago,
aldi bat ezik bizitz osoa
nai nuke bertan igaro."*

Bertan dugulako gure amets-toki, bertan
gure izatearen erroak. Batzuen biotzak ez-

padakite mintzatzen ere. Euskalerrriak eman
ditu zenbait olerkari guzion biotz-miñak
abesteko. Oien baratzean izan ditugu eta
ba-ditugu bikain askoak mendi-zaletasun
miñak eraginda beren olerki madrigalen
igelak mendiari eskeiñi diotenak, eta gañe-
ra, ez nola-naiko poesiak. Lizardi aundiak
adimenez sakondi bezin laburki adierazi zi-
gun goruntz-nai gogaketa ori bere «Mendi-
gaña» deritzan olerkian:

*"Maite ditut gallurrak
argiak ez beste...
Ai, egaztia ba-nintz,
gaiñik-gain, nenbilke!"*

Baiñan gai oietan, lenbiziko gure olerka-
ria Bettiri Ibarrart (1838-1919) jatsutarra
izango genun noski, bere olerkiak «Artzain-
tsa mendian», «Ikazkin mendian» eta «Li-
bertadea maite», ezagunarazigarriak dira
mendia maitatzen dugunontzat: eta azken
ontan, ara zer dion mendian arkitzen zun
azkatasunari buruz, gozotasunez beteriko
bertso batean:

*"Euskaldun garbi batek ote dauka deusik
Libertadea bezain gauza aberatsik?
Ez, ez, harentzat ez deus, hain baliosik.
Zorion hortaz baizik ez baitu ametsik,
Hori gabe ez duke bizitze urusik."*

Berriz, Elizanburu ospetsuak mendiko
pakeari zuzentzen dizkion gorespenetan, ar-
gi asko nabaitzen du, olerkari onek, bere
mendizaletasun-miña:

*"Asko dira menturaz nitaz urrikaltzen,
Atsegin zoro batzuz ez bai-naiz gozatzen.
Urrikari hek dauzkut orain eta lehen:
Bakearen gozoa ez dakite zer den!"*

*Mundupean duenak higatzen bizia,
Ardura du berekin izaten hauzia.
Bakea jendetarik urrun igorria,
Handik kendurik dago mendian jarria."*

Gai ontaz Elizondo apaiza ere ez dugu antzu, onek ere bere poesian ba-du amaika gauz on mendia musa duelarik. Zer gauza iraintsuk astindu ote zun estropa bizi au idaroki zuanean?:

*"Banua mendiraño pakearen billa,
Urian nagolako erioz urbilla..."*

Zatozte jarrailleok landuaz, aipaturikoen oñarriak sendotzera, gure mendien iturburu gardenetatik edanaz: Mitxelena, Etxaniz, Iratzeder, Onaindia, Salaberry, eta abar. A!, uritar askok, zuek bezela, balekite zer

dan basoko azkatasuna, pakea, txori txorrotzioaren doñu alaia, errekatxoan leiar marmario-eresia, bakartasunezko biotz-ikarra, artzai ta baserritarren zintzotasuna eta egurats garbian zein atsegingarri dan gogo-koitasunean murgiltzea; gizonan izakeraren garbitasunak berpiztea... Mendian ba-da zorionik aski.

Jaunak emango al dizue argikundea ortaz jarraitzeko eta mendizaleoi, kemena, bizian zear mendi erraietan gure urratsok zuzenduaz olerkari gogoz bidez-bide eramateko. Ametsak dirala?, bizi guzia ez ote da gero amets bat?

*"...Ametsak lagun, amets egin, bai, amets!...
mendi-magalean."* (E. Arrese)

SAN MARTIN'DAR YON

Txoriaren negarra

Txoritxu txiki polit bat zebillen neguko goiz otz batean, an basoan galduko txabol baten onduan, pio-pio errukarriaz mintzatzen. Zer adierazi nai ote zuan?

—Aztu al zerate, mendi eta zugaitzak, entzun zenituzten nere udaberriko kanta ederretatik? Etzerate oroitzen, zuek loreak, nik, zuek itxusten eta jaten ari ziran mamutzak, aldendu nituela? Orduan kantu eta lanak zebeñ edertasun ta usai goxoekin eskertu zenidazten; baño orain nere zintzurra otzak ixildu ta mamutzak aldatu diralakoz, estali zerate mandire zuri orrekin, nik ez dezadan zekin bizia arkitu.

—Zuk, etxe ontako nagusia, nola itxi didazu zure etxeko ate ta leioak; zergaitik elur otz orrekin estali dezu zure etxeko tellatua? Nik zure landa-tako ar guztiak garbitu nituzun, ta orain lanik ez daukatelako, ez zure etxean ezta zure tellatuan ere, ez didazu idor pixko bat ere eman nai.

—Nigaz errukitu zaitzete gutxienez zuek, neregandik ainbeste mesede artutako ume maiteak. Non zabilzate orain? Emen dago zuen ama zarra otzaz ia illik. Ekarri zaidazute bazka pixka bat, nere odola berotzeko... Ez nuen uste oñen gaizki eskertuko zitiazuela ekingaitik artu nituen neke guztiak.

Jatekorik ez daukat, eta billatzeko indarrrik ere ez. Ola ere ilko ote dira, nere ume maitiek?

Auek esan ondoren zagon zugaitzetik, lurrera erori zan otzez ormatu-rik.

Modesto Anaia